


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 igo ziren 2008ko abuztuan

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko abuztua, 2007ko abuztuarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %7,7 gehitu ziren

EAEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,1eko igoera izan du 2008ko abuztuan, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %7,7raino igo da, Eustaten datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*)Gehikuntza abuztuko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2008ko abuztuan, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten: aurreko hilaren aldean % 0,2 igo ziren Eraikuntzakoak eta % -0,3 jaitsi Obra Zibileko lehengaien kostuak. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Eraikuntzako lehengaien kostuak %7,8 hazi dira eta Obra Zibilekoenak %9,7.

Abuztuan, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan dituzte: Energia elektrikoa eta gasa (%3,3), Kautxu eta plastikoa (%1,8) eta Kimika-industria (%1,6) adarretako lehengaiek. Berriz, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten ondokoek: Petrolio finzea (%-3,1), Material elektrikoa (%-0,8) eta Ez-metalezko industria (%-0,3).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasarik handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Energia elektrikoa eta gasa (%22,5), Petrolioaren fintzea (%16,9) eta Ez-metalezko meak (%13,3). Bestalde, urteko arteko prezioetan (2008ko abuztua, 2007koaren aldean), igoera txikiagoak izan zituzten Material elektronikoko (%-1,7), Ez-metalezko industriako (%1,2) eta Zuraren industriako (%1,9) lehengaiak.

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE. Datu aurrerapena. 2008ko abuztua

GOIBURUAK	INDIZEA 2005= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	117,2	0,1	7,7	6,5
ERAIKINAK	116,6	0,1	7,5	6,2
OBRA ZIBILA	119,2	-0,2	8,8	7,4
LEHENGAIEN KOSTUA	117,4	0,1	8,2	6,6
ERAIKINAK	116,6	0,2	7,8	6,2
OBRA ZIBILA	120,1	-0,3	9,7	7,8
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es